

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

“Ekonomia zirkularreko proiektuak garatzeko laguntza ekonomikoak. 2021. urtea.” udal programako eskabideak ebazteko erabakia

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 eta 4 artikuluetan xedatutakoarekin ildotik, iragarki honen bitartez jakinarazten zaie interesdunei Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren 2021eko irailaren 10eko ebazpena, zeinen bitartez “Ekonomia zirkularreko proiektuak garatzeko laguntza ekonomikoak. 2021. urtea.” udal programaren deialdia ebatzi baitzen, eta eduki hau baitu:

2020ko abenduaren 11n onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren dirulaguntzen 2021eko deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak (2020ko abenduaren 30eko ALHAO, 148. zenbakia).

2021eko martxoaren 18an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak “Ekonomia zirkularreko proiektuak garatzeko laguntza ekonomikoak. 2021. urtea.” udal programaren deialdi publikoa, baita berariazko oinarriak ere —2021eko apirilaren 16ko ALHAO, 41. zk.—, konkurrentzia-prozeduraren bitartez tramitatzeke, 50.000,00 euroko zuzkidurarekin, udal aurrekontuko 2021/08.23.4331.4.7136 partidaren kontura.

2021eko uztailaren 9an egindako bilkuran aztertu eta eztabaidatu zituen eskabideak deialdiaren 11. oinarrian aurreikusitako hautatze- eta jarraipen-batzordeak, eta aurkeztutako proiektuek deialdiko betebeharrak betetzen zituzten egiaztatu, horiek balioetsi eta lehentasun-hurrenkera ezarri ondoren, 2021.ean ekonomia zirkularreko proiektuak garatzeko laguntza-deialdia ebazteko proposamena egin zion Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari.

Tokiko Gobernu Batzarraren 2021eko martxoaren 18ko akordioarekin bat etorritik, Ekonomia Sustapenaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak du eskumena eskabideak ebazteko, baita horren ondorio diren errekursoak ere.

Horrenbestez, udal-aurrekontuetan nahikoa kreditu-zuzkidurarik badagoenez, batzorde teknikoak egindako proposamena aintzat harturik eta eskumenak eskuordetzeko 2019eko ekainaren 21eko erabakia dela medio, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak hau,

Ebatzi du

Lehena. “Ekonomia zirkularreko proiektuak garatzeko laguntza ekonomikoak. 2021. urtea.” deialdiko oinarrietan ezarritako betebeharrak ez dituztela betetzen egiaztatu delarik, eskatutako laguntza ekonomikoa ukatzea enpresa hauei:

ENPRESA	ARRAZOIA
18.591.891-W	8. oinarria ez betetzea. Ez du gutxieneko puntuazioa lortu
J05440789	8. oinarria ez betetzea. Ez du gutxieneko puntuazioa lortu.
B01663004	7. oinarria ez betetzea. Ez da gutxieneko inbertsiora iristen.

Bigarrena. Deialdiko betebeharrak betetzen direla egiaztatu eta aurkeztutako eskabi-deak balioetsi eta lehenetasun-hurrenkera ezarri ondoren, “Ekonomia zirkularreko proiektuak garatzeko laguntza ekonomikoak. 2021. urtea.” programako laguntza hauek eman daitezela onestea —adierazten diren zenbatekoak, zeinek deialdiko zuzkidura agortzen baitute—:

ENPRESA	BALORAZIOA	LAGUNDU DAITEKEEN INBERTSIOA	DIRULAGUNTZA TEORIKOA	BENETAKO DIRULAGUNTZA
	GUZTIRA			
F01534718	69,5	19.515,83 €	9.757,92 €	9.757,92 €
B01482520	68,5	136.000,00 €	10.000 €	10.000 €
B01367606	64,5	49.000 €	10.000 €	10.000 €
A01036920	63	6.845 €	3.422,50 €	3.422,50 €
B01314087	61,5	5.277	2.638,50 €	2.638,50 €
B01244938	61	8.755,78 €	4.377,89 €	4.377,89 €
B01569409	60,5	13.301,40 €	6.650,70 €	6.650,70 €
F01035278	60	23.989 €	10.000 €	3.152,49 €
			56.847,51 €	50.000 €

Hirugarrena. Emandako dirulaguntza horien guztien zenbatekoa, hau da, 50.000,00 euro, 2021eko ekitaldirako onetsitako udal aurrekontuko 2021/08.23.4331.4.7136 aurrekontu-partidan kontura jasota uztea (4. oinarria), laguntzen ehuneko 80aren ordainketa onestea (10. oinarria) eta gainerako ehuneko 20a 10. oinarri horretan bertan ezarritako baldintzari lotuta uztea.

Laugarrena. Laguntzen onuradunek deialdiaren oinarrietan ezarritako betebeharrak betetzen ez badituzte, bertan behera utzi ahal izango dira laguntzak, eta, ordainduta badaude, jasotako diru-kopurua —osorik nahiz zati bat— itzultzeko eskatuko zaie.

Bosgarrena. Udalaren Enpresen Zerbitzuko teknikariak izendatzea enpresa-proiektu horien jarraipenaren arduradun.

Seigarrena. Erabaki hau Udalaren webgunean eta Arabako ALHAOn argitaratzea.

Zazpigarrena. Ebazpen honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, errekurtsio hauek aurkeztu ahal izango dira, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan eta uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8., 45. eta 46 artikuluetan xedatutakoaren ildotik.

a) Aukeran, berraztertzeo errekurtsioa, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritza eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Hilabete igarotzen delarik berraztertzeo errekurtsioa aurkezten duzun egunaren biharamunetik, hura ezetsi egin dela ulertu ahal izango da, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian.

b) Administrazioarekiko auzi errekurtsioa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Aukerako berraztertzeo errekurtsio hautatuz gero, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu harik eta hura berariaz ebatzi edo, administrazioaren isiltasuna dela medio, ezetsi arte.

Hori guztia, bidezko den beste edozein errekurtsio edo ekintza gorabehera.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko irailaren 14an

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Administrazio Orokorreko teknikaria
IGNACIO CEPEDA CRESPO*